

## Andres Urdanetaren jaiotzaren bostehungarren urteurrena

---

Gutxiespenean, ahanztura eta desitxuramenduaren erdibidean, galdutako pertsonaia historikoa izan da Andres Urdaneta (Ordizia, 1508-Mexiko, 1568) oraintsu arte. 2007-2008an haren jaiotzaren 500. urteurrena ospatzeko egindako ekitaldien ondoren, XVI. mendeko euskal pertsonaia ospetsuenen artean lekua egin zaiola esan daiteke, Euskal Herrian bederen, haren merezimenduei zegokien eran. Egiteke geratzen da, haatik, bere idazlan ugarien hausnarketa ez ezik bilketa eta argitalpen kritikoa, lehenetasunezko betekizunetako bat besterik ez aipatzearren. Zer esanik ez Fernandez Armesto historialariak arestian harentzat eskatzen zuen mundu mailako aitortpena, historiako nabigatzaile handienen parean.

Andres Urdanetaren gutxiespen luzeak bazituen zergatiak, alafede. Egungo ikuspegitik haren lorpen nagusizat hartzen duguna, Ozeano Barean Asiatik Amerikaraino joateko itsasbidea aurkitu eta ondorengo 250 urteetan jardungo zuen Manilako Galeoia (haren inguruan zertu zen joan-etorri ekonomiko, kultural, demografiko eta abar luzearekin) abiarazi izana lehen mailako ekarpen historikoa izan arren, ez zen historiografia klasikoak lehenesten zituen arloetakoa, batik bat Espainian. Eta urrats zientifiko-tekniko erraldoi haren garrantzia ez da oraintsu arte aintzakotzat hartu, ez geure artean ez eta mundu osoan.

Idazlan multzo zabala bezain sakabanatua eta identifikagaitza utzi izanak, bestalde eta okerbidez, ez du erraztu Urdanetaren ezagutza, harez geroztiko mendeotan. Apala ezik herabea izan zen ordiziarra idatzietan bere buruaz argibideak eskaintzerakoan, eta gehienetan zeharbidez atxiki behar izaten dira haietan bere zehaztapen biografikoak -oso bakanak beti-, autorearen nortasuna bera ere ezkutuan ez dutenean. Euskarakadaz jositako haren gaztele-raren bitxiak, bestalde, zailtasun bereziak ezartzen ditu bere idatzien ulerpen zuzenerako, batez ere euskararen ezaguerarik ez duten ikertzaileentzat, eta horregatik agian geratu da nahiko zokoratuta haien argitalpen kritikoa, sistematikotasunik gabe eta zatika baizik egin ez dena azken bi mende hauetan.

Bere garaiko eta berehala ondorengo kronikagile eta nabigazio tratatugile gaztelau nagusiek aintzakotzat hartu zuten, haatik, Urdaneta XVI. mendean, eta ordiziarraren idatzietako hainbat zuzenean ezagutu eta bereganatu zituztela behin baino gehiagotan esan daiteke. Batzuetan, espresuki harekiko zorra aitortuz, Fernandez de Oviedo kronikagile ospetsuaren kasuan batez ere, Loaysaren espedizioaz Urdanetak egindako kontakizuna hartu eta moldatu baitzuen bere historian hari zegokion atala osatzeko. Alonso de Santa Cruz kosmografo eta kronistaren kasuan, ordea, aipamenik egin gabe. Biek hala biek eduki zuten harreman zuzena Urdanetarekin, eta bien idazlanak argitaratzeke geratuko ziren Urdanetari zor ziotenean, arrazoi ezberdinak medio.


Halaz eta guztiz ere, XVI. mendearen amaiera edota XVII.aren hastapenetako historialari eta tratatugileek, Hakluyt-ek ingelesez edo Herrerak gaztelauen artean, demagun, bazuten ordiziarraren ekarpenen berririk, zehaztasun handirik gabe bederen. Baina, haien ondoren, ahanzturan murgildu zen kasik erabat euskal nabigatzailearen ospea, eta Argien Mendeko historiografia landuenean ez zaio aipamenik ere egiten.

P. Hidalgo Nucherak “komentu historiografia” deitu duenera mugatuta egon zen Andres Urdanetaren ezaupidea ondorengo hiru mendeetan, eta gaztelerazko argitalpenetan soil-soilik aurki daiteke haren berri. Funtsean, fraide-kide zituen agustindarrek (J. de Grijalva, J. de Medina edota G. de San Agustinek, bereziki) edota Filipinen kristautzearen historia landu zuten beste elizgizonek gogorarazten zuten, erlijioso tasunari zegozkion aldeak ia soilik aintzakotzat hartuz, eta itsasketa alorra eta gainerako fazeta sekularrak bazter emanez.

XIX. mendearen hastapenetan, inperio kolonialaren azken apurren legitimizazio diplomatiko eta politikorako artxibategietako araketa eta dokumentu historiko nagusien bilketa eta argitalpen lana egiten hasitakoan “berragertu” zen Urdaneta, bere nahiz besteen idatziei esker. Eta haien bitartez osatu zitzaizkion lehen biografia laburrak, nahiko taxugabe desitxuratuak batzuetan. Okerren artean luzaro iraungo zuenetako bat, jaiotze datari buruzkoa zen, imajiaziozko beste betelan biografiko batzuen artean.

Urdanetaren jaiotzaren laugarren mendemugaren ospakizuna dei genezakeena (nahiz eta garaikideek ez zuten inoiz horrela bataiatu, agian jaiotzaren inguruan zeuden zalantza handiengatik) gutxiespen horren agerkari sintetikoa izan zen duela ehun urte. Baita ere orduko koiuntura politiko eta ideologikoak berezkoak zituen korapiloen ispilu gardena. Ia inoiz ere Ordizia eta Gipuzkoako ingurunetik atera ez zen “mendeurren” hura hamazortzi urtez luzatu zen, eta bitarte horretan Filipinak espainiar kolonia izatetik Estatu Batuen menpera igaro ziren, 1896an hasi eta 1898an, iparramerikarren eskuhartze militarren ondoren, amaitu zen gerraren ondoren eta Parisko Tratatuak berretsi zituen baldintza aski bitxi haietan.

Isidoro Uribesalgok egin eta Ordiziako plazan kokatu zen brontzeko estatua ezagunean mamitu zen nagusiki ahalegin hura, ondorengo belaunaldien



irudimena biziki baldintzatuko zuen agerkaria utziz zinez. 1891ko martxoan abiatu zen Ordizian estatua bat eraikitzeko batzorde eragilea eta, gorabehera asko eta korapilatsuen ondoren, 1904an inauguratu zen artelana. Ordurako, berreskurapen prozesu bertsuaren eraginez, Gipuzkoako Aldundiaren fatxadan ezarria zen Urdanetaren izena eta bustoa gipuzkoar ospetsuenen artean, eta Donostiako hiriak ere emana zion haren izena Zabalkundeko kale berrietako bati.

Pertsonaiaren ezagutzan aurrerapen eskergarriak erakarriko zituen beste emaitza bat ere argitaratu zen, haatik, ingurumen hartan: Fermin de Uncilla agustindarraren *Urdaneta y la conquista de Filipinas* liburua. Harez geroztiko mende osoan nahitaezko erreferentea izan da obra hau eta, beste argibide askoren artean, ordura arte Urdanetaren balizko jaioturtearen auzi nahasia argitu eta 1507-1508ko data ezarri zuen. Iraganeko komentu historiogra-

fiarekin erabateko etendura suposatzen ez bazuen ere, berresan behar da Uncillaren biografia izan zela Urdanetaren figura eta egintzak dokumentu eta lekukotasun garaikideetatik abiatuz finkatzeko oinarriak ezarri zituena, eta haren idatzi nagusienetako batzuk ezagutzera eman zituena.

Ondorengo biografo guztiak (Mariano Cuevas, Mairin Mitchell, Jose de Arteche, Isacio Rodríguez, Luis Muro, Leoncio Cabrero, e.a.), Uncillaren jarraipen dira hein handi batean, nor bere ekarpen berriak egin dituen arren. Berauetatik bizirik diren ia guztiak Ordizian biltzea lortu du 2008ko azaroko Nazioarteko Kongresuak.

## 1. V. MENDEURRENERAKO IRIZPIDEAK

Metaturiko gutxiespen horiek gainditu eta Urdanetaren isla XXI. mendeko gizarte globalizatuetan ezagutzera ematea izan zen haren jaiotzaren V. Mendurrenaren ospakizuna bultzatu eta kudeatzeko, 2005ean, Ordiziako Udalaren gerizpean eta bertako herritarrez osatuta gehienbat, *Urdaneta 500* egitasmoaren Batzordeak bere buruari ezarri zion erronka. Hala zioen bere aurkezpenean:

Andres Urdanetaren jaiotzaren V. Mendurrena ospatzeak itsasgizon horren bizitza eta lana ezagutaraztea du helburu. Askok eta askok ez dute batere eza gutzen Andres Urdaneta, beste askorentzako Ameriketarako bidaietan parte hartu zuten euskaldun famatu horietako beste bat da, eta beste batzuek, gehienez, misiolari bezala identifikatzen dute, horrelaxe irudikatu baitzuten XX. mendearren hasieran bere jaioterrian, Ordizian, egin zioten monumentuan. Baina Andres Urdaneta, itsasgizona, astronomoa eta humanista izateaz gain, izaera zientifiko-teknikoko aurkikuntza handi baten protagonista izan zen: "itzulerako bidea" deitu izan dena, hau da, Filipinetatik Ameriketara itzultzeko ibilbidea, Itsaso Barea zeharkatuz. Mugarri horrek munduko merkataritza-ibilbide garrantzitsuenetako bat ireki izuen, Itsaso Bareko mendebaldea eta Asia Amerikarekin lotzen duena.

Ekitaldi honekin Urdanetaren memoria errebindikatu nahi dugu, itsasgizon garrantzikoenetako bat delako, Colon, Magallanes edo Cooken parekoa.

Bide batez, Urdanetaren balio zientifiko, diplomatiko eta humanoen aitortza lortzea, nola Ordizian eta Euskal Herrian hala mundu osoan eta, bereziki, harekin zerikusi estua izan zuten herrialdeetan, zen helburuetako lehena eta nagusia. Horretarako komunikazio-kanpaina bat burutzeko asmoa aurreratzen zen, zientzia eta gizarte ikerketen eremuari estuki lotuta. Omenduaren ezagutza sakontzeari ez ezik haren mundu-ingurumena osatzen zuten egitate politiko, kultural eta ekonomikoen ezaguera hobetzeko funtsezko garrantzia aitortzen zitzaion, eta betekizun horretarako iraganeko klitxeak eta ikuspegi desitxuratuak argitu eta eraberritu beharra ezinbestekotzat jotzen zen.

Ezagutzaren hedapenarekin batera, ordea, anaitasuna ere erein nahi zen egitasmoarekin: «Kultura desberdinen arteko elkarbizitza eta ideia eta elkartasun-trukea sustatu nahi da, Europa, Amerika eta Asia bezalako lekuetako pertsonekin harremana estutuz».

Batzordekide gogatsuak ez ezik laguntzaile sorta joria (Eusko Jaurlaritzako Industria saileko SPRI- ISEB, Gipuzkoako Foru Aldundia, Espainiako Gobernuak Kultura ministerioko SECC, UPV/EHU, EITB, Kutxa, Arcelor-Mittal, Orkli, e.a.) arduratzea lortu zuen Batzordeak hasieratik, eta haiei esker finantzatu ahal izan dira ondorengo hilabeteetan burutu ziren egitasmoetako asko.

Batzordearen lehen erabakietako bat [www.andresurdaneta.org](http://www.andresurdaneta.org) web orrialdea sortzea izan zen. Lanabes garrantzitsua bihurtuko zen ondorengo hilabeteetan, egitasmoaren berriak eta proiektuak euskaraz, gazteleraz eta ingelesez zabaldu ahal izateko, Urdaneta beraren idatziak, arestian Batzordeak espresuki transkribaraziak, irakurgai ipintzeko, prentsa dossiera idatzizkoa eta ikus-entzunezkoa- zabaltzeko, e.a. Ospakizunak amaitu eta gero ere jarraitzeko asmoarekin sortutako weba da, bere edukiek hala eskatzen dutelako eta mendeurrenak sortutako giroa eta harreman sareari eusteko tresna eraginkorrena izan daitekeela uste delako.

## 2. HITZALDI ZIKLOA

2007ko otsailaren 15ean hasi zen «*Urdaneta eta bere testuinguru historikoa*» solasaldi-zikloarekin abiatu ziren V. mendeurrena prestatzeko jendaurreko ekitaldiak Ordizian. Mendeurrenaren protagonistak bere sorterrian ere pairatzen zuen ez-egapena gairatzea zen zikloaren xede funtsezkoa. Urdanetaren biografiarik berrienaren egilea eta Batzorde sorberriaren bultzagileetako bat zen Jose Ramon de Miguel donostiarrak eman zuen lehen hitzaldia, «*Urdaneta, un hombre moderno*» goiburupean. Hitzaldi haren edukiaren mamia, pertsonaiaren modernotasuna adiera historiko-filosofikoan, ondorengo ekitaldietako askotan eta ikuspegi ezberdinetatik berretsiko zen, eta mendemuga osoaren leiv-motiva izango zen.

Ezagutza hedatzeko egitasmoa gauzatzen lagun zezaketen adituak, euskal mundu akademiko eta teknikokoak ia denak, izan ziren hizlari, batzuetan euskaraz eta besteetan gazteleraz, Ordiziako Barrena Kultur Etxean ondorengo hilabeteetan, 2007ko udako aisialdiaren parentesian salbu, 2008ko maiatzera arte hilean behin egingo ziren solasaldietan. Hitzaldiek, bide batez, web orrialdearen dokumentu biltegia hornitu zuten, hitzaldi osoa hala nola idatzizko bertsio bana eskegitzen baitziren webean. Edonola ere, zuzeneko entzuleen kopurua oso handia izan zen batzaz beste, eta aurkezpenaren ondorengo solasaldiek parte-hartze deigarria edukiko zuten, ia salbuespenik gabe.

Aztergaien zerrendak ulertaraz dezake beste ezerk baino garbiago aurkezturiko ikuspegi aniztasuna. José R. de Miguelen lehen saioaren ondotik etorri baitziren Susana Truchuelo García historialaria, Batzordeko kidea, eta mendeurreneko Erakusketa eta Kongresuaren arduraduna izango zena-*ren Ordizia en la época de Urdaneta*; José Luis Orella Unzué historialariaren *Del tratado de Alcaçovas (1479) al de Tordesillas (1494)*; Mikel Aramendi Arteaga kazetariaren *XVI. mendeko euskaldun ibiltari baten hizkeraz*; Jose Antonio Azpiazu Elorza historialariaren *Merkatariaik, aurkitzaileak eta abentu-*

*razaleak. Urdanetaren inguruko euskal mundua*; Ana de Zaballa Beascoechea Ameriketako Historiaren irakaslearen *De cómo América llegó a los fogones: el impacto alimentario del descubrimiento*; Jose Mari Urkia Etxabe medikuntza irakaslearen *Itsasontzietan osasuna aurkikuntzen garaian*; Óscar Álvarez Gila Ameriketako Historiaren irakaslearen *Uraz handiko zurrumurruak. Euskaldunak eta Ameriketarako emigrazioa, historia ezezagun bat*; Xabier Alberdi Lonbide historialariaren *Urdaneta, XVI. mendeko euskal itsas zabalkundearen adibide*; Lourdes Odriozola Oyarbide historialariaren *La construcción naval en Guipúzcoa. Siglo XVI*; eta José Ramón de Miguel Bosch itsasontzi kapitainaren bigarren hitzaldia: *Los conocimientos náuticos en la época de Urdaneta*. Azken hitzaldia Marciano de Borja Ramos, Filipinetako enbaxadako lehen idazkaria eta kontsulak emango zuen, 2008ko maiatzean, *Urdaneta y los pioneros vascos en Filipinas: su contribución a la formación de la nación filipina* gaitzat hartuta.

### **3. URTEAREN HASIERA OFIZIALA ETA HERRI ERAKUNDEEN ARTEKO EKINTZAK**

*Urdaneta* 500 urtea, hala ere, 2007ko abenduaren 5ean abiarazi zuten ofizialki Ordizian, Gloria Macapagal Arroyo andereak, Filipinetako lehendakariak eta Juan Jose Ibarretxe, Eusko Jaurlaritzako lehendakariak. Protagonistaren jaiotegun zehatza zein izan zen jakin ezinak (baina, aldi berean, 1508ko maiatza baino lehen jaioa izan behar zuela ziurtat eman beharrak) bururarazitako data izan zen, gain-gainez, eta filipinar goi agintariaren agendak behartua, zehazkiago, San Andres egunaren ingurukoa izatearen irizpide konbentzionala asetzen zuen heinean.

Bere gobernuko goi arduradun ugariarekin iritsi zen Macapagal lehendakaria (Europar zehar egiten ari zen estatu bisitaldi zabalaren barnean kokatzen baitzen Ordiziara eginikoa, besteak beste). Haien artean zen, baita ere, Amadeo R. Pérez, Urdaneta hiriko alkatea, Manila iparraldean dagoen Pangasinan probintzian. Ibarretxerekin batera harrera egin zieten artean, Markel Olano, Gipuzkoako Ahaldu Nagusia, eta Jose Migel Santamaria Ordiziako alkatea aurkitzen ziren. Ohorezko auresku eta agurren ondoren, azarotik Barrena jauregian ikuskizun zegoen Erakustaldia bisitatu zuten denek, eta *Urdaneta* 500 urtea ofizialki inauguratutzat eman zuten.

Ondorengo egunetan gauzatu zen Urdaneta eta Ordiziako alkateen artean bi hirien senidetzea, Menduurrenako ospakizun hauetan hitzartu direnatan lehenengoa. Geroztik, 2008ko urriaren 9an Acapulco hiri mexikar handi bezain entzutetsuarekin senidetu zen, eta azkena Peruko El Callaorekin sinatu zen azaroan. Senide zaharrena eta iharrenaren papera egokituko zaio Ordiziari sorturiko anaitasunean, bere aldean askoz handiagoak baitira hiri senidetuak: bera halako hamar da biztanlez hiruretan txikiena den Urdaneta filipinarra; eta zer esanik ez Acapulco eta El Callao askoz handiagoen kasuan. Udal ordezkari ordiziarrek urtean zehar Filipinetara, Mexikora eta Perura eginiko bisitaldietan, gainera, oroitarri berdinak ezarri dira hiri senidetuetan, Urdanetak denentarte ezarri zuen bilbea gogoraraziz.




Filipinetan, bestalde, Manilako San Agustin Museoko zuzendaria den Pedro Galende agustindarraren burutzapean *Urdaneta 500 Philippine Commission* aritu da lanean. Web orrialdea (<http://urdanetafilipinas.org>) abiarazi eta mantentzeaz gain, Batzorde honen lorpenetako bat izan da Gloria Macapagal lehendakariak, *Presidential Proclamation 1423* adierazpenaren bitartez 2008a *Urdanetaren Urtea* aldarrikatu izana, eta herrialdeko posta zerbitzuak ordiziarraren irudierekin zigilu emisioa egin izana. 2009an egin asmo diren senidetze eta oroitarri ezarpen berrieekin edukiko lukete jarraipena Filipinetako ospakizun hauek.

Irailaren 4an, bestalde, Andres Urdanetaren eguna ospatu zen Zaragozan, Ura goiburutzat hartuta, 2008ko udan ospatu den Erakusketa Unibertsalean. *Casa Asia* erakundearekin elkarlanean, Ordiziako Udalak M. Urretabizkaiaren dokumentala eta J.R. de Miguelen liburua aurkeztu zituen bertan, Ozeano Bareko Irletako eta Euskadiko pabiloietan egin ziren ekitaldietan.

#### **4. KULTUR ZABALKUNDERAKO EKITALDIAK: ERAKUSKETA, LIBURUA, DOKUMENTALA...**


*Urdaneta 1508-1568 Erakusketa* izan da ziur aski Mendeurrenaren zabalkunderako ekitaldietan oihartzunik handiena lortu duena, bisitarien



kopuruz behin behin. Jose Ramón de Miguel eta Susana Truchuelo komisariorizat zituela, Urtearen inaugurazio ofizialarekin abiarazi zen Ordiziako Barrena Jauregia; lehen sei hilabeteren buruan, 6.000 bisitaldi baino gehiago jaso zituen. Ondoren, Donostiako Boulevard aretoan egon zen ikuskizun 2008ko uztail osoan, irailtik aurrera berriro Ordiziara itzultzeko, abenduko amaiera ofiziala arte. Eginkizun geratzen da Casa Asiaren lankidetzarekin Erakusketa Bartzelonara eta Madrilera eraman ahal izateko asmoa.

Erakusketaren euskarri fisiko nagusia, irudi koloretsuz (mapak, gehienbat) eta euskarazko nahiz gaztelarazko irakurgaiz eratutako hamabost panel erraldoik osatzen zuten non, atalka, Urdanetaren bizitza eta lorpen funtsezkoak laburbiltzen baitziren, bloketan banatuta: testuingurua, biografia, aitzindariak eta itzulerako bidaia. Aurkezpen informatiko interaktibo baten bitartez ere ikus zitezkeen eduki horiek beroiek, eta era honetan argibideak ingelesez ere jasotzen ahal ziren. Horrez gain, Erakusketa beraren sintesia eskaintzen zuen bospasei minutuko bideoa, hiru hizkuntzatan entzun zitezkeen ikus-entzunezko poetikoa, eta Urdanetaren denbora eta espazioarekin zerikusi zuzena zuten elementu material liluragarriak (itsasketa instrumentuak, espeziak, armak, zetak eta bitxiak...) ere ikus zitezkeen Erakusketan. Eduki hau guztia web orrialdean ere ikus zitezkeen, gainera, internetez, eta hala jarraituko du etorkizunean ere.





2008ko apirilean aurkeztu zen Ordizian eta Donostian José Ramón de Miguel Bosch-en *Urdaneta y su tiempo - Urdaneta eta bere garaia* liburua, gazteleraz eta euskaraz (*Urdaneta and his time* ingelerazko bertsioa beranduxeago argitaratuko zen). Egilea, merkatalontzietako kapitain ohi gipuzkoarra, ordiziar itsasgizonaren biografia laburrago baten egilea zen lehendanik, eta Mendeurrena kudeatu duen Batzordeko kide zen hasiera-hasieratik. Liburuaren betekizun nagusia, Urdanetaren biografia eguneratu bat, azken urteotan hari buruzko ezagutzak egin dituen aurrerapenak jasoko zituena, eta egundaino argitaratzeke zeuden haren hainbat idatzi ezagutaraziko zituena, eskuragarri ipintzea zen, Uncillaren lanak mende bete lehenago suposatu zuen jauziaren oinordeko eta eraberritze moduan.

De Miguelen biografiak hainbat argibide berri eskaintzen ditu Urdanetaren izaera eta egintzak ulertzeko, batez ere itsasketa arazoei eta gorabehera politiko-diplomatikoiei dagokienean. Haren bizitzan bi arok jarraitzen duten arren oraindik nahiko ezkutuan (haurtzaro eta hezkuntza garaikoa, bere familia ingurumenaren ezagutza zehatzagoarekin, alde batetik; eta Espainia Berrian 1539tik aurrera, erregeordetzako funtzionario legez lehen hamarkadan eta fraide agustindar bihurtuta ondoren, eman zuena, bestetik), aski argituta eta hausnartuta geratzen dira beste hainbat: Loaysaren espedizioaren bilakaera zorigaitzokoa (non Elkanoren heriotzaren zergatiari buruzko hipotesi berri bat

aurkezten baitu De Miguelek, beste argibide askoren artean), portugaldarre-kiko harreman gatazkatuen nondik norakoa, garaiko ezagutza zientifiko eta teknikoen ebaluapena, e.a.

Liburuaren ekarpenik esanguratsuena, hala ere, 1564-65eko bidaiaren prestakuntza eta gauzatzeari buruzkoa da Urdanetaren figurari dagokionean. Itsasketa arloan zehaztasun handiz ikertzen du De Miguelek Manilako Galeoiek 250 urtez errepikatuko zuten ibilbidearen funtsa, klimatologia, ozeanografia edota nabigazio tekniken ikuspegitik. Burutazio arrakastatsua ez baizik luzaro, eta etorki ezberdinetatik, bilbatutako itsas jakituriak eta intuizio zuzenek gidatutako eginahala ikusgarria izan zela argi frogatzen du.

Hain zuzen Itzulerako Bidearen ezaupide horixe goiburura eramaten zuen *Urdanetaren sekretua - El secreto de Urdaneta*, ordubeteko dokumentala estreinatu zen Ordizian hiru hilabete geroago, 2008ko uztailen. Mikel Urretabizkaia, EITBko Berrikuntza arduraduna eta Mendeurrenaren Batzordeko kide ordiziarrak zuzendua, Udalak sustatua eta EITBk, EJKo Industria sailak eta ISEB-SPRIK diruz lagundua, ikuslego zabal eta urrundenari ospakizunak ildo nagusizat erabili dituen ikuspegiak helarazteko ekoitzi zen dokumentala Urdanetaren bizileku izan ziren kontinente eta irla ezberdinetan. Beñat Intxausti, Gorka Lariz eta Manuel Villoria aktoreek irudikatzen dute pertsonaia bere bizitzako aro ezberdinetako kontakizun biografikoetan eta, horrez gain, historialari eta adituen irizpideak eta iruzkinak jasotzen dira. Zinema komertzialetan nola telebista kanal ezberdinetan ikusi ahal izan da dokumentala ondorengo hilabeteotan eta *Canal Historia* tematikoan ikusgai izango da 2009tik aurrera, kanalaren ohiko programazioetan.

Ez da Urdanetaren inguruan ekoitzi den ikus-entzunezko bakarra: *Argia* astekariak *Andres Urdaneta: Filipinatik Amerikara izarren bidetik* lau minutuko dokumental laburra plazaratu zuen euskaraz maiatzean, ikus-entzunezko hedabide digitaletan banatzeko.

Entzunezko hutsen atalean aipatu beharrekoa da Barroko Aire musikaldiak bere XXIII. zikloan Urdanetari eskaini dion omenaldia. Ordizian eta Ataunen eginiko ziklo osoa haren gorazarerako aldarrikatzeaz gain, azaroaren 22an, Santa Zizili egunean suertatzen zen emanaldia hain zuzen haren garaiko musikari eskaini zion A Capella Portuguesak *Mexiko hirian Karlos V.aren hiletak ospatzeko musika* deituriko bildumarekin Ordiziako elizan. Eta azaroaren 28an Nazioarteko Kongresuari agurra emateko Donostiako Orfeoia bertaratu zen euskal eta nazioarteko abesti gogoangarrietako batzuk eskaintzera.

Aurreko mendeurrenean protagonismo nagusia izan zuten arte plastikoek, oraingoan ere, apalagoan bederen, izan dute egitaterik Urdanetaren oroitzapena aldarrikatzerakoan. Ospakizunen inguruan senidetu diren hirietan, Jorge Loyzaga arkitekto mexikarrak diseinatuta, ezarri diren plaka bikiez eta Urdaneta Oianguren Ikastetxean ipinitako monolitoaz gain, Koldobika Jauregik egindako eskultura, mendeurrenaren amaierako ekitaldietan inauguratu zena, aipatu behar da. Bi metroko altuerakoa eta kareharrizkoa, Itzulerako Bidearen ideia irudikatzen du, Mendebaldea adierazten duen gurutze handia eta Ekialdea

sinbolizatzen duen esfera erdia elkarlotzen dituela. Egileak berak aukeraturako gunean kokatu da, eliza nagusiaren atzeko atearen eta Torrea eraikin historikoaren artean.

Ohikoetakoa ez den kultur zabalkunde mota zilegitzen zuen, bestalde, Asia Hego-ekialdea eta Ertamerikari hain zuzenki loturiko ospakizunak: espezien ezagutza. Horregatik, maiatzaren 24 eta 25ean egokitzen zen ohiko Erdi Aroko Feria edo Antzinako Merkatua profitatuz, *Espeziak: mundu bat aurkitzeke* erakusketa antolatu zen Ordizian. Era guztietako espeziak, bizigailuak eta ongailuak, guztiz ezezagunak asko gaur egun sukaldaritza sofistikatuenetik at behintzat, ikusi, ukitu eta usaindu zitezkeen bertan. Bidenabar, erakusketarako sorturiko *Espezien mundua* argitalpenaren bitartez ikusleek jakin ahal izan zuten ez soilik haietako bakoitzaren sorburua, onurak eta erabilpena, baizik XVI. mendean halakoek zuten estimu ikusgarria eta urre prezioa, eta horrek guztiak Urdanetarena bezalako bidaietan izan zuen eragin erabakigarria.

Bi eguneko erakusketa hura amaituta, *D'elikatuz* Elikadura eta Gastronomía Gunean *Urdaneta 500* urtea bukatu bitartean ikusgai egon da Ordizian, *Urdanetaren Ibilbidea* izeneko turismo eta kultura sorta batean, zeinaren bitartez Barrena Jauregiko Erakusketa eta Espezien Munduarena ikusi ez ezik jatetxe batean haiekin egindako *Urdaneta Menua* dastatzeko aukera eskaintzen baitzitzaien bertakoei nahiz bisitariei.

Aipagarria da baita ere Erdi Aroko Feria horretan bertan Albaola Elkarteak aurkeztu zuen *Basotik Itsasora* erakusketa. Euskal itsas ondarearen eta, bereziki, zurezko ontzigitza tradizionalaren ikerketa, berreskurapena eta zabalkunde egiteko asmoz sortutako erakunde honek Euskal Herrian barnealdeko bailarek eta kostaldeko ontziolek zuten lotura estua, itsasontziak egiteko zur eta gainerako lehengaien hornikuntzari zegokionean batez ere, agerrarazi zuten jendaurrean, zuhaitzen hautaketatik hasi eta ontzia itsasoratzearekin amaitzen zen prozesua gogoraraziz.

## 5. EZAGUTZA BELAUNALDI BERRIEI HELARAZI

Andres Urdanetaren figurak eta lorpenek urrutian ez ezik Ordizian bertan edota Euskal Herrian pairatzen zuten gutxiespena gainditzeko xede funtsezko-tik eratorri zen, Batzordearen hastapenetatik, haren ezagutza haur eta gaztetxoei helarazteko deliberoa, hartarako ahal ziren lanabes didaktiko eta pedagogiko guztiak garatuz. Ahalegin horren emaitza iraunkorra izanen da Urdanetari buruzko unitate didaktikoa, Bigarren Hezkuntzako bigarren urteko gaztetxoentzat Mikel Ubillos irakasle eta Batzordeko kideak paratu duena, eta 2009-2010 ikasturtetik aurrera Euskal Herriko ikastetxe guztietan erabilgarri izango dena. Lan hau abiapuntutzat hartuta, Mexikoko hezkuntza arduradunekin edukitako elkarrizketetan, bestalde, herrialde hartako Lehen Hezkuntzako laugarren urterako eta Bigarren Hezkuntzako hirugarrenerako antzeko unitate didaktikoak prestatzeko asmoa hitzeman zen Ordiziako alkateak eta batzordekide batzuek 2008ko urrian Acapulcora eta mexikar hiriburura egin zuten bisitaldian.



Etorkizunera begirako ereintza-lan beronen lekuko dira, bestalde, Mendeurren ospakizunek iraun duteneko denboraldi osoan Jakintza Ikastola ordiziarrean, bertako irakaslea eta Batzordeko kidea den Koro Irastortza irakaslearen zuzendaritzapean, ikasleek Urdanetaren inguruan burutu dituzten jarduerak eta, bereziki, haien emaitza den euskarazko web orrialdea (<http://andresurdaneta.wetpaint.com>). Bidenabar, komikia ere argitaratu da txiki-entzatzat, Urdanetaren bizimodua eta ibilerak haren alabaren ikuspegitik kontatuz kolore-marrazkitan.

Ordizian bertan aspaldidanik Urdanetaren izena daraman Herri Ikastetxean, gainera, ikasturtean zehar eginiko hainbat jarduera didaktikorekin batera, oroitarria ezarri zen haren gorazarrez 2008ko maiatzaren 15ean, Hezkuntza Saileko, Udaleko eta Ikastetxeko arduradunak bertan zirela. Oroitarriari atxikita, honako irakurgaia daraman plaka: "Beste batzuek aurrera joan ahal zitezten etorri zen atzera gizon hau. Andres Urdanetaren V. Mendeurrena 2008. urtea".

## 6. URDANETA ETA GLOBALIZAZIOA UDAKO IKASTAROETAN

Euskal Herriko Unibertsitateko XXVII. Uda Ikastaroetan eginiko *Las rutas marítimas en la globalización: el tornaviaje de Urdaneta* kurtsoa izan da Mendeurreneko ekitaldi akademiko garrantzitsua, Nazioarteko Biltzararekin batera. *Urdaneta 500* Batzordeak eta UPV/EHUK antolatuta eta SPRI-ISEBek lagunduta, 2008ko uztailaren 21, 22 eta 23an burutu zen, gazteleraz, 30 orduko ikastaroa Donostiako Miramar Jauregian eta Ordiziako Udaletxean, arrakasta handiz. UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko Ekonomia Aplikatuaren katedraduna den Baleren Bakaikoak eta Kantabriako Unibertsitatean Historia Modernoko irakaslea eta Urdaneta 500 Batzordeko kidea den Susana Truchuelok zuzendu zuten kurtsoa.

Urdanetaren ekarpena gizarte eta ekonomien ikuspegitik hausnartzea zen helburua, batik bat Itsaso Barearen bi alboen ikuspegitik, baina baita ere sasoi hartako Gipuzkoa eta Europari dagokionez. Bide batez,

Asia, Amerika eta Europako herrialdeen arteko elkartruke ekonomiko eta kulturalan Andres Urdanetak egin zuen ekarpena ezagutzera ematea

aldarrikatzen zen xede nagusizat.

Urdanetaren itzulerako bideak zein eragin sozio-ekonomiko eta kultural izan zuen aztertu, baita geroago izan zuen sendotze-prozesua ere, ekonomiaren eta itsaso-garraioaren globalizazio-prozesuan urrats garrantzitsua eman baitzen

ere ikertu nahi zen, hala nola

Pazifikotik haratago harreman ekonomiko eta kulturalak ezartzerakoan gipuzkoarrek izan zuten eginkizunaren gainean eztabaidatu, Gipuzkoako ekonomia garatzen eta zabaltzen ari zen garai hartan.

Lehen egunean, uztailaren 21ean, A Coruñaeko Unibertsitateko Luis Alonso Álvarez irakasleak *La organización del viaje de Loaysa y la Casa de Especiería Coruñesa. El papel de Andrés de Urdaneta* gaiarekin hasi zuen ikastaroa. Ondoren, Carlos Martínez Shaw, Madrilgo UNEDeko Historia Modernoaren katedradunak *Después del tornaviaje. Filipinas y el espacio del Pacífico en el siglo XVI* aztertu zuen. Eguneko azken saioa, Estatu Batuetako Medfordeko Tufts Universityko irakaslea den Felipe Fernández Armestok egin zuen hitzaldia *Urdaneta y la Exploración del Planeta* gaiaren inguruan. Ikastaroaren egunetako bakoitzean egingo zen moduan, sintesi solasaldiarekin amaitu zen jardunaldia.

Bigarren egunean, uztailaren 22an, UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzietako Fakultatean Mundu Ekonomia eta Nazioarteko Harreman Ekonomikoen irakaslea den Patxi Zabalok aurkeztu zuen *El actual proceso de globalización desde la perspectiva histórica* gaia. Ondoren, Álvaro Aragón, unibertsitate bereko Filologia eta Geografia eta Historiako Fakultatean Historia Modernoaren irakasleak landu zuen *La evolución de la economía gipuzcoana*

*en tiempos de Urdaneta: un período de desarrollo y expansión entre supuestas crisis* gaia.

Uztailak 23, hirugarren eta azken egunean lehen hizlaria Salvador Arriola, Mexikok Brasilgo Sao Paulon duen Kontsul Nagusia izan izen, *Relaciones transpacíficas en los siglos XVI-XIX* gaiarekin. Ondoren, Benito Legarda, Filipinetako Nazio Bankuaren lehendakari ohia eta Manilako Ateneo de Manila Universityko irakasle emerituari egokitu zitzaion *Intercambios comerciales en el Sudeste asiático después de la consolidación del Galeón de Manila* aztergaiaz hitz egi-tea. Azkenik, *El Galeón de Manila y Perú* gogoeta egin behar zuen Raúl Eduardo Bao García, Peruko Limako San Martín de Porres Unibertsitateko errektoreak etortzerik ez zuelako izan, SPRI-ISEBeko eta *Urdaneta 500* Batzordeko kidea den Ramon Peñagarikanok aurkeztu zuen gaia.

Egun berean eta amaierako ekitaldi modura, Ordiziako Udaletxean mahai-inguru batean bildu ziren Salvador Arriola, Benito Legarda eta Ramon Peñagarikano *La contribución de Andrés de Urdaneta al desarrollo económico y cultural de la zona del Pacífico* gaia eztabaidatzeko.

## **7. NAZIOARTEKO KONGRESUA**

2008ko azaroaren 25etik 28ra ospatu zen, lau egunez, Ordiziako Barrena Jauregian Mendeurreneko ekitaldi intelektual eta akademiko funtsezkoena, *Andres Urdaneta, gizon modernoa* Nazioarteko Kongresua. Urtebete baino gehiagoz buruturiko ospakizun guztien gailurra izan zedin antolaturiko biltzar honen xedea, jakina, Andres Urdanetaren figuraren inguruan sakontzea zen, eta haren inguruko azken ikerkuntza eta aurkikuntzen gaineko egungo balantzea osatu eta ezagutza aurkeztea.

Ordiziako Udalak eta SECC-Sociedad Estatal de Conmemoraciones Culturales erakundeak antolatuta eta Susana Truchuelo eta José Ramón de Miguelek koordinatuta, UPV/EHUko Erdi Aroaren, Aro Berriaren eta Amerikaren Historia Saileko Óscar Álvarez Gila eta Ana de Zaballa Beascoechea irakasleen, eta Manuel Iturrioz eta Goyo Lecuona, Ordiziako Batzordeko kideen lan-kidetzarekin antolatu zen kongresua. Gaiarekiko interesa edota jakin-mina eduki zezakeen edonorentzako irekia izan arren, aditu, ikertzaile, historialari eta ikasleen arteko bilkura eta topagune, adostasun eta eztabaida-leku izateko asmoarekin prestatua zen bereziki Kongresua. Bidenabar, bai eztabaidaren marko teorikoagatik bai partaideen jatorriagatik, maila zientifiko gailena eta nazioartekotasun gardena eman nahi izan zion Batzorde bultzagileak hastapenetatik.

Hiru gai-multzo handik gorpuzten zuten biltzarraren egitura: lehen multzoa, Urdanetaren jatorria, Loaysaren espedizioa eta Moluketako irletako auzia eta Portugalekiko tirabirek osatzen zuten; bigarren multzoan, Urdaneta Gaztelara itzuli zenekoa eta espezien kontrolaren gaineko liskarrak, hala nola hark Espainia Berrian eginiko egonaldia eta Filipinetarako bidaiaren prestaketen ingurukoak ziren aztergai; eta, azkenik, hirugarren multzoan Urdanetak Filipinar



irlekin edukitako harremana, Itzulerako Bidaia eta haren ondoriozko Manilako galeoia eta beronek ekonomian izan zuen eragina aztertzen ziren.

Hein handi batean protagonistaren biografiaren kronologiari atxikitako egitura honi jarraiki, hari buruzko jakitun bizi handien ponentziak bildu eta zuzenean, ordubete inguruko hitzaldi moduan, aurkeztu ahal izatea zen helburu nagusia; eta haiekin batera, ekarpen berri interesgarriak egin zitzaizketen beste ikertzaile batzuen komunikazioei ere parada eskaintzea, ondoren ekarpen guztiak argitara eman ahal izateko.

Isacio Rodríguez Rodríguez (1924), Urdanetaren biografo ezagun eta, hura bezala, aita agustindarrak eman zion hasiera Kongresuari azaroaren 25ean, asteartez, “Andrés de Urdaneta, agustino, 500 años del descubridor del tor-naviaje” inaugurazio hitzaldiarekin. Ordiziarraren biografiari buruzko gain-begirada honetan, Urdanetaren biztari buruzko mito eta gaizkiulertuetako batzuk argitu zituen ponentziagileak, adibidez luzaro oker ezarritako jaiotze data, Magallaesen espedizioan parte hartu izanaren asmakizuna, gudalburua izan ote zen, e.a.

Jarraian, Manuel Leão Marques Lobato (1956), Lisboako IICT-Instituto de Investigação Científica Tropical erakundeko ikertzaile eta Afrika ekialdean, Indian eta malaisiar-indonesiar uharteetan portugaldarren presentzia historikoaren ezagutzan adituak aurkeztu zuen bere ponentzia: “Pájaro sin alas. Acción política de Andrés de Urdaneta y su descripción geo-antropológica de

las islas del Maluco". Ekarpeneren mamia, Asia hego-ekialdeko irlen eta, oso bereziki, haietan ekoizten ziren espezien inguruan Portugal eta Gaztelako erre-sumek XVI. mendean bizi zuten jazargoa, eta ingurumen hartan Urdanetaren argibideek eduki zuten garrantzia izan zen.

Kongresuko saioetako bakoitzean egingo zen bezala, azaroaren 25eko lehen zati hau gai-multzoari zegozkion komunikazioen aurkezpenarekin eta entzuleekiko solasaldi batekin amaitu zen.

Biharamunean, azaroak 26, Patricio Hidalgo Nuchera (1960), Madrilgo Unibertsitate Autonomoan Amerikaren Historiaren irakaslea eta Filipinetako historiaren ikertzaile eta aditua denak aurkeztu zuen bere ponentzia: "La figura de Andrés de Urdaneta en la historiografía indiana, conventual, documental y moderna". Ordiziar ospetsuari buruzko historiografiaren azterketa eta baheketa lan zehatza egin zuen, etorki eta mende ezberdinetako kronika eta historiek, hogeitaz inguru guztira, hari buruz helarazi digutena jaso, testuinguruan ipini, argitu eta, egungo ezagutzaren arabera, epaituz.

Juan Gil (1939), Sevillako Unibertsitatean Filologia Latindarraren katedraduna eta Aurkikundearen Garaiari buruz gaztelaraz argitaratu diren obra nagusienetako hainbaten egilea edota argitaratzailea denak eman zion amaiera Kongresuaren lehen gai-multzoari "Andrés de Urdaneta en su entorno vasco" ponentziarekin. Bertan, Loaysaren espedizioko kideek utzi zuten dokumentazio ugaria (testamentuak eta haien inguruko auziak, batik bat) oinarritzat hartuz, maizenik jatorriaren arabera eratzen ziren gizatalde haien barne eta kanpo harremanak eta loturak aztertu zituen, betekizun horretan Urdanetak erakutsi bide zuen gaitasun berezia nabarmenduz.

Komunikazioen aurkezpenarekin eta solasaldiarekin amaitu zen azaroaren 26ko eguerdian Kongresuaren lehen gai-multzoa, Urdanetaren gaztaroko azterkizunen ingurukoa.

Bigarren multzoko lehen ponentzia aurkeztu zuen egun bereko arratsaldean José Ramón de Miguel (1946), itsas merkataritzako kapitain eta Urdanetaren biografoak, "La dificultades del tornaviaje de Urdaneta" aztergaiaren inguruan. Ibilaldi erraldoi hura prestatu eta onik burutzeko ezinbestekoak ziren atalak (ontzien eraikuntza eta prestamena, hornikuntza, eskifaien osaera eta trebakuntza, eguraldien ezagutza eta aurreikuspena,...) nola zaindu zituen Urdanetak agertu ondoren, De Miguelen tesia izan zen Itzulerako Bidearen aurkikuntzaren arrakasta ez zela inondik ere halabeharrendaren oparia izan, baizik ordiziarren jakitearen eta XVI. mendean itsasketa teknika europarrek jo zuten aurrerakadaren emaitza logikoa.

José Antonio Cervera Jiménez fisikari eta Mexikoko Monterreyko Teknologia Institutuko irakasleak ildo bertsuari eutsi zion azaroaren 27ko lehen ponentzian, "El trabajo científico de Andrés de Urdaneta y el problema de la longitud geográfica" baitzuen gaia. XVI. mendeko zientziaren eta nazioarteko harremanen gako nagusietako bat zuen hizpide, bidenabar: longitudea, hots, eki-mendebalde kokamendua zehazteko aurkitzeko zailtasuna (latitudea



zehazterakoan ematen ez zena), eta berorretatik eratortzen ziren endredo latzak, bai itsasketan jarduterakoan hala Tordesillaseko Itunak ezartzen zituenak bezalako banalerroak finkatzerakoan.

Thomas Hillerkuss, Mexikoko Zacatecaseko Unibertsitate Autonomoko irakasle eta XVI. mendeko Espainia Berriko Gizarte Historian adituak burutu zuen egun berean bigarren gai-multzoa “Andrés de Urdaneta y sus años de funcionario de la Corona en la Nueva España” ponentziarekin. Ekarpene honen bitartez, 1538an Alvaradorekin Ertamerikara joan eta 1553an agustindar fraide sartu zen bitarteko ibilbidearen argibide garrantzitsuak eskaini zituen ordiziarrari buruz, beti ere Mendoza erregeordearen konfiantzazko gizon legez. Bide batez, Itsaso Bareko nabigazio kontuez arduratu zela, Avalos eskualdeko korrejidorea izan zela, e.a. argitu zituen, bigarren gai-multzoa burutzen zuen hitzaldian.

Hirugarren gai-multzoari hasiera emanez, Mexikoko Unibertsitate Iberoamerikarrean Nazioarteko Harremanen irakaslea den Maria Cristina Barrón Sotok aurkeztu zuen, ostegun arratsaldean, bere ponentzia, “La trascendencia del tornaviaje en el comercio transpacífico” goiburupean. Manilako Galeoiaren eragin ekonomiko eta soziala aztertu zuen, eta egungo globalizazioaren abiapuntu funtsezkoenetakoa izan zela berretsi zuen.

Ondoren, Antonio García Abásolo, Kordobako Unibertsitateko Amerikaren Historiaren katedradun eta Historia Moderna, Garaikide eta Amerikarenaren Sailaren zuzendariak “Los continuadores de Urdaneta. Vascos en la nueva ruta de la seda (siglos XVI a XVIII)” gaia aztertu zuen. AGIko artxibategiak abiapuntutzat hartuta, hiru mendez Filipinetara joan ziren euskaldunen albisteak eta bizipenak gogorarazi zituen, eta haietako batzuek beren sorterrirako edota erkideentzat eman edo utzi zituztenak azpimarratu zituen bereziki.

Azaroaren 28koa, Kongresuaren azken eguna, izan zen gorabeheratsua hizlarietako zegoikienean, hitzemandako gehienek, urruntasunaren zioengatik besteak beste, ezin baitzuten etortzerik izan. Gaiak, ordea, aurreikusitakoak izan ziren, ordezkari hizlarien bitartez. Horrela, Filipinetako Historia Institutu Nazionaleko lehendakaria eta Kultura Ministro ohia den Ambeth R. Ocamporen “Filipinas y los Filipinos en el tiempo de Urdaneta” ponentzia, Madrilgo Brithish Council Schooleko Francis Navarro aurkeztu zuen. Eta Japoniako Waseda Unibertsitateko Toshio Obi-ren ekarpena, “APEC: nueva unión económica en el Pacífico, 500 años después” izenburua zuena, unibertsitate bereko Naoko Iwasaki irakasleak aurkeztu zuen.

Amailerako hitzaldia, Leoncio Cabrero, Madrilgo Unibertsitate Complutenseko Amerikaren Historiako katedradun emerituak eman zuen “Alegria, tristeza y ansiedad en la travesía del galeón de Manila” gaiaren inguruan. Bertan, bidaia aspergarri bezain erakargarri hura egin behar izan zutenek nozitzen zituzten oinazeak, gairiditzen zituzten arriskuak eta aurkitzen zituzten poz eta entretenigarriak gogorarazi zituen, aspaldiko kontakizunetatik jasotako hitzkin. Solasaldi eta agur hitzekin amaitutzat eman zen azkenik Nazioarteko Kongresua.

Donostiako Orfeoiak eman zien, halere, abestiz, beranduxeago behin betiko agurra kongresu-kideei eta gainerako zaletu guztiei Ordiziako elizan.

## **8. AMAIERA**

2008ko abenduaren 5ean, Gloria Macapagal, Filipinetako lehendakariak inauguratu zuenetik xuxen urtea betetzen zenean amaitutzat eman zen Ordizian *Urdaneta 500* mendemuga. Luis Giampietri Rojas almiranteordea, Peruko lehendakariordea izan zen ekitaldiaren protagonista. Hastapenekoan erabili zenaren antzeko protokoloarekin, bisitariari harrera egin zioten bertako agintariek eta, Koldobika Jauregiren eskultura inauguratu eta Erakusketa ikusi ondoren, amaierako hitzak egin zituen Peruko lehendakariordeak.

*Mikel Aramendi Arteaga*